Fundazioa Bizkaiko Foru Aldundiari atxikituta dagoen euskal sektore publikoko fundazioa da, batetik berezko lege-nortasun independentea ,eta, bestetik, zuzenbidezko eta aritzeko gaitasun osoa dituen, eta beraren mugapen bakarrak Fundazioaren pertsona sortzaileek Estatutu hauen sorrera-egintzan egindako borondatezko adierazpenak eta, betiere, Fundazio horri ezargarri zaizkion legezko xedapenak eta, zehatzago esanda, ekainaren 2ko Euskal Herriko Fundazioen 9/2016 Legean , eta hura garatzen duen araudian , jarritakoak izango dira.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

Fundazioaren helburua da Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritzaz, mantentze-lanaz, zaintzaz eta sustapenaz arduratzea, orkestra hau Bizkaiko herritarrentzat eguneroko bizimoduan musikarekin eta musikaren ingurunearekin erlazionatzeko espazio bihur dadin. Xede horrekin, musika eta antolakuntza aldetiko bikaintasuna abiapuntu duten esperientziak bideratuko ditu, eskaintza berezitua eginez era guztietako publikoarentzat, eta inguruaren eta Bilbao/Bizkaiaren nazioarteko proiektzioaren aldeko kultur garapenean betebeharrak izanik.

Horretarako, eta adibide gisa, honako helburu hauek izango ditu Fundazioak:

- a) Bilbao Orkestra Sinfonikoa sustatu eta zaintzea, beraren jarduera artistikoa hobetuz eta sendotuz.
- b) Beste musika-talde batzuk, ganbera-orkestrak, hari eta haize arloko taldeak eta antzekoak sortu eta zaintzea.
- c) Kontzertu sinfonikoak, ganbera-kontzertuak, kontzertu didaktikoak eta beste era batzuetakoak eratu eta interpretatzea, errepertorio instrumentala gogoan hartuz, eta batez ere euskal



- konpositoreei arreta berezia eskainiz.
- d) Bizkaian musika klasikoaren arloan egiten den eskaintzaren koordinazioa sustatzea.
 - e) Beste era batzuetako manifestazio musikalak edota lirikoak antolatzea, baita hezkuntza edota prestakuntzarako jarduerak ere, ikerlanerakoak edota zabalkunderakoak, izaera iraunkorarekin edo une jakin batzuetan.
 - f) Era guztietako jarduerak eratzea, hala nola lehiaketak, biltzarrak, elkarraldiak, e.a., betiere Fundazioaren helburuekin zerikusia edota haien osagarri izanik.
 - g) Grabazioak eta publikazioak argitaratzea.
 - h) Konpositore, orkestra-zuzendari, bakarlari, interpretatzaile eta abesbatzentzako bekak, diru-laguntzak edo sariak sustatzea; batez ere sor litezkeen balio musikal berrientzat.
 - i) Bilboren eta Bizkaiairen irudia zabaltzen laguntzea.
 - j) Helburuak lortzeko, Fundazioak beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan jardun ahal izango du, dagozkien lankidetzat eta babes mailako hitzarmenak sinatuz.
 - k) Beste edozein jarduera osagarri gauzatzea, betiere helburua antzeko kultur manifestazioak sustatu edo eratzea denean eta Fundazioaren helburuekin bat datozenean.

4. artikulua.- Helburuen garapena.

Fundazioaren helburuak egokien iritzitako moduan garatu ahal izango ditu Fundazioak, beste entitate edo erakunde batzuetan partaide izanez barne, sorrera-gutunean, Estatutu hauetan eta, edonola ere, legeetan jarritakoak izanik mugapen bakarrak.

5. artikulua.- Helbidea.

Fundazioaren helbidea hauxe izango da: Euskalduna Jauregia, Abandoibarra etorbidea 4, 48011 Bilbao.

Patronatuak, askatasun osoz, egoitzaren helbidea aldatu ahal izango du, baina Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko zaio. Era berean, Fundazioaren helburuak betetzeko, legokiokkeenaren arabera, beharrezko liratekeen establezimendu, ordezkaritza edota bulegoen kokalekua zehazteko eskumenak Patronatuari emango zaizkio.

6. artikulua.- Lurralde eremua.

Fundazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo ditu bere jarduerak, orkestrak munduko beste leku batzuetan izan litzakeen biren eta agerraldien kaltetan izan gabe, alde batetik, eta Fundazioari berez dagokion eremutik kanpo irudia sustatu eta proiektatzeko egin litzakeen jardueren kaltetan izan gabe, beste batetik.

7. artikulua.- Onuradunak.

Fundazioak guztientzako interesean lan egingo du, eta Fundazioaren onuradun edozein pertsona natural edo juridiko izan liteke, inolako bereizkeriarik gabe.

Fundazioak, eskaintzen dituen zerbitzuengatik, bere onuradunei diru-kopururen bat ordaintzea eskatzen dienean, onura jasoko dutenen aukeraketa dagokion diru-kopuru hori ordaintzearen arabera soilik egin beharko da. Era berean, Fundazioak eskaintako zerbitzuen izaeraren beraren

ondorioz onuradunen kopurua mugatu beharra sortuko balitz, horien aukeraketa eta zehaztapena Fundazioaren Patronatuak egingo du, izaera ezeztaezinarekin, horretarako kontuan izanik partaide izan nahi dutenen merezimendu, beharrian, ahalmen ekonomiko eta aprobeixamendu aukerak, edota ezaugarri objektibo batzuen arabera.

8 artikulua.- Funtzionamendu printzipioak.

Fundazioak printzipio hauek izango ditu gidari bere jardueran:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren helburu eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek, oro har, eta balizko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena, jokabide-kodeak eta funtzionamendurako jardunbide egokiak sortuz.
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-izpirituaren, baita interes propio eta partikularren aurrean Fundazioaren interesak lehenestearena ere.
- e) Lankidetzat leiala eta etengabekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak benetan Fundazioaren helburuetarako erabil daitezela defendatu eta babestea, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz.
- g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA FUNDAZIOAREN GIDARITZA.

9. artikulua- Patronatua.

1.- Patronatua da Fundazioaren gidaritza, administrazio eta ordezkaritzarako organo gorena, eta bere kontura izango dira Fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezko diren kudeaketaren gidaritza eta kontrolko eskumen guztiak.

2.- Zehatz esanda, Patronatuari dagokio:

- a) Fundazioaren norabidea zehaztea, beraren helburuak hobeto bete ditzan eta helburu horiek benetan betetzen direla jagozteko.
- b) Fundazioaren goi mailako ikuskaritza, zaintza eta kontrolaz arduratzea.
- c) Ekonomi eta finantza arloko baliabide guztien administrazioa, edozein delarik ere baliabide horien jatorria.
- d) Urteko kontuak onestea.
- e) Ekitaldiko jarduera-plana onestea.
- f) Fundazioaren helbidea aldatzea eta, baleude, haren establezimenduen egoitzak zehaztea.
- g) Estatutu hauetan aurreikusitako Batzorde Betearazlea eratzea, eta batzorde horretako kideak izendatzea.
- h) Batzorde Delegatuak sortzea, haien kideak izendatzea, haien eskumenak zehaztea eta ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea.



- i) Fundazioak beste fundazio batekin edo batzuekin bat egin dezan erabakitzea.
- j) Fundazioaren azkentzea eta likidaziorako programa erabakitzea.
- k) Herentzia, legatuak edo dohaintzak onartu edo ezestea, Fundazioarentzat komenigarri irudituko balitzaizkio, eta horien berri Babesletzari ematea.
- l) Fundazioko zuzendaritzako beharginak izendatu edo kargutik kentzea.
- m) Fundazioaren estatutuak aldatzea, sortzailearen nahia hobeto betetzeko beharrezko balitz.
- n) Araudian aurrikusitako xedatze eta kargatze-egintzei dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak onartzea,

10. artikulua.- Patronatuko kideak.

1.- Jarduteko ahalmen osoa duten pertsona fisikoak izan ahalko dira Patronatuaren kide, baldin eta kargu publikoa betetzeko ezgaituak ez badaude. Pertsona juridikoak ere izan ahalko dira Patronatuaren kide, baina beraien izenean pertsona fisikoren batek edo batzuek aritu beharko dute Patronatuan.

2.- Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek pertsonalki bete beharko dute beren kargua, baina beste patronatukide bat izenda dezakete haien izenean eta ordezkari gisa jardun dezan egintza jakin batzuetan, eta ordezkaria pertsona ordezkatuak eman dizkion jarraibideei lotu beharko zaie. Nolanahi ere, patronatukideak kargu publiko edo pribaturen bat duenean, beste pertsona bat izendatu ahal izango du kargu hori haren izenean bete dezan modu iraunkorrean.

3.- Patronatuan pertsona juridikoak ordezkatzeko dituztenek modu egonkorrean beteko dute ordezkartza-lana. Ordezkari horiek pertsona juridikoan duten karguagatik izendatu badituzte, kargu hori uzteak berekin ekarriko du patronatuko kide izateari uztea.

4.- Patronatuaren kideak doan arituko dira beraien karguan. Dena dela, beraien zereginak burutzeak sortuko dizkieten gastuak, behar bezala justifikatuak, ordaindu ahal izango zaizkie.

11. artikulua.- Osaketa eta iraupena.

1.- Patronatua gutxienez hiru kidek osatuko dute eta gehienez seik.

2.- Berezko kide izango dira Bizkaiko ahalak nagusia, Kulturako foru diputatua eta Bilboko alkatea.

3.- Patronatuko kide hautetsiak izango dira patronatuak berak izendatutako pertsona fisikoak edo juridikoak, dirutan edo espezieetan aldizkako kuota ordaintzearen bidez Fundazioaren sostenguan eta haren helburuak lortzeko zereginetan lagunduko dutenak. Fundazioarentzat ekarpen artistiko, tekniko, zientifiko edota ondare arloko ekarpen esanguratsuak egin ditzatenak ere izan daitezke kide hautetsiak.

Kide hautetsia izateko, ezinbestekoa izango da Patronatuaren adostasunezko akordioa, interesatuta dagoen pertsonak edo erakundeak aldeztu aurretik hala eskatu ondoren. Horretarako, estatutu hauetako 15.5 artikuluan zehaztutako aldeko botoa eman beharko du Patronatuak.

Akordio horretan izendapenaren iraupena zehaztuko da, ezinbestean gehienez lau urterakoa. Halere, epea amaitzean, izendapena iraupen berean luzatzeko aukera egongo da, inolako mugarik gabe.

4.- Patronoek kargua utziko dute Euskal Herriko Fundazioen Legean, eta hura garatzen duen

araudian aurreikusitako kasuetan.

5.- Patrono hautetsien ordezkariak duten pertsonak, haiek pertsona juridikoak direnean, edozein unetan ordeztu ahal izango dira, ordezkatzeko duten pertsonak edo erakundeak hala erabaki badu, betiere horren berri Patronatuari jakinaraziz.

12. artikulua.- Patronatuaren lehendakariak eta lehendakariordetza.

1.- Fundazioaren Patronatuaren lehendakari kargua Bizkaiko ahalaren nagusiari dagokio, eta honek kultur arloko foru diputatua izendatu ahal izango du bere izenean aritzeko.

Patronatuaren lehendakariak gobernu organo horren ordezkariak gorenak izango du bere gain eta, patrono izatearren dagozkion ahalmenek gain, Fundazioaren ordezkari izango da Patronatuaren eta Fundazioaren organoen erabakietatik sortutako egintza eta kontratu guztietan, bai eta aurkez daitezkeen gainerako auzi, espediente, kuestio administratibo, gubernatibo, judizial eta extrajudizialen, eta Prokuradore eta Abokatuei pleitoetarako ahalorde orokorrak emateko eskumena izango du. Era berean, Patronatuaren batzarrek deitu eta batzar horietako buru izateko ardura dagokio, Estatutuotan eta legeetan zehaztutakoari atxikiz, eta deliberazioak zuzendu eta erabakiak egikaritzea ere bai.

2.- Lehendakariordetza kargua Bilboko udaletxeko alkateari dagokio.

13. artikulua.- Patronatuaren Idazkaritza.

1.- Patronatuak idazkaria izendatuko du. Idazkaria Patronatuaren kideen artean hautatuko da edo kanpokoak izan ahalgo da. Fundazioaren Batzarre Betearazlearen idazkari ere izango da. Idazkari kargua betetzen duen pertsona Zuzenbidean lizentziaduna izan behar du.

2.- Idazkariaren ardura izango dira:

- a) Betebehar horretan jardutea Patronatuaren batzarretan eta, hala balitz, erakundearen beste organoetan, batzar horien akta idaztea eta erabakitakoaren fede ematea.
- b) Egiagaberiak egitea Fundazioaren lehendakariaren oniritziarekin. Fundazioko erregistro eta akten liburuak ordena gordez egin eta zaintzea.
- c) Lehendakariari laguntzea batzarretako eguneko gaien zerrenda zehazten eta Patronatuaren eta Batzarre Betearazlearen batzarretarako deialdia bideratzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari beharrezko akordio guztien berri ematea, indarrean dagoen legegialaren arabera.

14. artikulua.- Batzarren eta deialdiak.

1.- Lehendakariak Patronatuaren batzarra deituko du, egoki irizten dion guztietan, bere kabuz edota gutxienez kideen herenak egindako eskariari erantzunez. Edonola ere, Patronatuaren gutxienez birritan elkartuko da urtero. Urte bakoitzeko lehenengo sei hilaren barruan ezinbestean bilduko da aurreko ekitaldiko urteko kontuak onartzeko. Era berean, bigarren seihilabetealdian, hartarako deialdia egin ostean, hurrengo urtealdirako jardura-plana onartuko da.

2.- Patronatuaren deialdiak idatziz egingo dira, idatzia jasoko dela bermatzen duen edozein



bitartekoren bidez, batzar eguna baino gutxienez hamar egun lehenago, premiazko egoeretan salbu, hala balitz epea hiru egunera laburtu ahal izango baita. Deialdian lehendakariak erabakitako eguneko gaien zerrenda zehaztuko da, bai eta batzarrerako eguna, ordua eta tokia ere.

3.- Patronatuaren bilerak bideokonferentzia bidez edo komunikaziorako beste baliabide batzuen bitartez gauzatu litezke, betiere bermatzen bada bileran zeinek parte hartzen duten identifikatzea, komunikazioa jarraitua izango dela, eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela eta botoa eman ahal izango dutela. Edonola ere, bilera lehendakaria dagoen lekuan egin dela ulertzen da.

4.- Salbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren autentikotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean eta eman diren baliozko botoetatik azkena jasotako datan hartu dela ulertuko da.

15. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea.

1.- Patronatua balioz eratzat emango da lehen deialdian batzarrera une bakoitzean dauden kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean; edonola ere, ezinbestekoa izango da berezko kideak batzarrean gotea.

2.- Aurreko paragrafoan adierazi den quoruma ez balitz lortuko, Patronatua lehenengo deialdirako jarritako ordua baino hiru ordu geroago elkartuko da, eta bigarren batzar horretarako, nahikoa izango da haren kideen herena bertaratzea, betiere bertan baldin bada Fundazioaren lehendakaria.

3.- Patronatuaren batzar unibertsala: aurreko paragrafoetan zehaztutakoaren kaltetan izan gabe, Patronatua deitutakotzat eta balioz eraturakotzat joko da kide guztiak bertan direnean eta aho batez onartzen badute batzarra egitea.

4.- Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, hurrengo atalean aurreikusitako salbuespenekin eta legeek ezartzen dituztenekin.

5.- Bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko da, euren artean ezinbestean berezko kideena, ondorengo erabakiak hartzeko:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Fundazioaren bateratzea edo amaitzea egiteko.
- c) Patronatuko kide hautetsiak izendatzeko.
- d) Fundazioaren zuzendaritzako langileak izendatzeko.

6.- Urteko jarduera-plana onartzeko ezinbestekoa izango da bertaratutakoen gehiengo soilaren aldeko botoa, euren artean berezko patronoena.

7.- Patronatuaren lehendakariak ez du boto erabakigarriarik edo kalitatekorik izango.

8.- Patronatuak hartutako erabakiak akta liburuan jasoko dira. Batzar bakoitzaren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute eta erabaki guztiak jasoko ditu, baita bozketen emaitzak ere, boto partikularrak barne.

16. artikulua.- Ordezkaritzak eta ahalordetak.

Aginte-organismoak batzorde delegatu edo betearazle bat edo gehiago izendatu ditzake, kasu bakoitzerako zehaztutako ahalmenekin. Beraren ahalmenetarako kide bat edo gehiago eskuordetu ditzake eta ahalorde orokorrak edo bereziak izenda ditzake, betebeharrak edo ardura mankomunatu edo solidarioekin.

Honako gai hauei buruzko erabakiak, ordea, ezin izango dira inoren esku utzi:

- a) Urteko kontuen onespina.
- b) Jarduera-planaren onespina.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, non eta egintza horiek helburuei zuzenean lotuta ez dauden.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo txikitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egite, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketak hori errepikatua bada eta babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Eskuordetzeak eta ahalorde orokorrak emateak eta errebokatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira, eta inskripzio horrek izaera deklaratihoa izango du.

III. TITULUA ONDAREA

17. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

1.- Fundazioaren ondarea balorazio ekonomikoa izan dezaketen era guztietako ondasunek eta eskubideek osatu ahal izango dute, Fundazioaren jabetzapeco instrumentala barne.

2.- Ondarea administratu eta antolatze ardurak Patronatuari dagokio, Estatutu hauetan zehaztutako moduan eta arlo honetan dituen eskumenen eta bitartekoen arabera.

3.- Fundazioaren ondarea honakoek osatuko dute:

- a) Fundazioaren sorrera-eskrituran jasotako ondare propioak.
- b) Kide berezkoen eta hautetsien ohiko eta ohiz kanpoko ekarpenak eta kuotak.
- c) Zuzenbideak onartutako bideen bidez, eta bereziki beste pertsona, erakunde edo instituzio batzuek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta diru-laguntzen bidez aurrerantzean eskuratutako duen beste edozein ondasun edo eskubide. Dohaintza, legatu eta herentziak onartzea Babesletzaren jakinean jarri beharko da. Fundazioak herentziarik onartzen badu, inbentarioaren mesedetan baino ez da egingo.



- d) Fundazioak egin ditzakeen jardueren eta hark duen ondareak emango dituten fruituak edo errentak, baita indarrean den legediaren arabera eman ditzakeen zerbitzuetatik sortutako ordainsariak.
- e) Legezko ezarpen esparruaren baitako beste edozein baliabide.

18. artikulua.- Ondarearen aldaketak.

Fundazioaren Patronatuak, edozein unetan eta behar adina aldiz, egoera ekonomikoak eskatzen duenaren arabera, egoki iritzitako aldaketa, eraldaketa edo bihurketak egin ahal izango ditu Fundazioaren kapitalean, honek, beraren balio izenduna mantendu arren, kapitalaren egiazko balioa edota erosteko ahalmena galdu ez dezan.

19. artikulua.- Ondarea zaintzea.

Fundazioaren ondarea zaindu eta gordetzeko, ondorengo arauak beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek Fundazioaren izenean egon beharko dute eta haren Inbentarioan jasoak, eta, balegokio, dagozkion erregistroetan inskribatuak.
- b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealeak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Ondasun publikoak eta balio higigarri, industrial edo merkataritzakoak, Fundazioaren izenean, banketxeetan jarri beharko dira.
- d) Balioak eta eskudirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezlagiriak eta jabetza, edukitza, erabilera, gozamen edo Fundazioa titular den gainerako edozein eskubide kreditatzeko gainerako dokumentu guztiak Patronatuak izendatuko duen entitatean jarriko dira, Fundazioaren izenean.
- e) Gainerako ondasun higigarri guztiak Patronatuak zehaztuko duen eran gorde eta zainduko dira.

Ondasun eta eskubide hauek guztiak Inbentario Liburuan zehaztuko dira.

IV. TITULUA ERREGIMEN EKONOMIKOA.

20. artikulua.- Ekonomia eta merkataritza jarduerak.

Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, halako jarduerak fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota jarduera horien osagarri edo lagungarri badira, eta betiere lehiaren defentsarako arauak men eginez.

Fundazioak diruz ordaindutako zerbitzuak eskaini ditzake, balizko onuradunen eremuan arrazoi gabeko mugapenik ekarri gabe.

21. artikulua.- Xedapen edo karga egintzak.

Babesletzari jakinaraziko zaio ondarearen parte diren ondasunen edo eskubideengan egin daitezen xedapen edo karga egintzen berri, edo haren helburuei zuzen atxikitakoak badira, edo azken urteko balantzean Fundazioari dagokion aktiboaren ehuneko hogeiko balioa baino handiagoa badute.

22. artikulua.- Kontabilitatea eta urteko kontuak.

1.- Fundazioaren jarduera kontablea Kontabilitatearen Plan Orokorraren edo berariaz ezarri beharreko beste edozeinen arauen arabera egingo da, eta ezarri behar diren zergei buruzko legediaren betekizunen arabera.

2.- Fundazioko patronatuak urteko kontuak onartuko ditu. Urteko kontuetan honakook sartzen dira: balantzea, emaitza-kontua, memoria eta dagokion kontabilitate-planak ezartzen dituen gainerako dokumentuak.

3.- Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, fundazioaren patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidaliko ditu urteko kontuak – behar bezala sinatuta– gordailutzeko, eta indarrean dagoen araudian adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

4.- Indarrean dagoen legediak edo Patronatuak komenigarri irizten dion guztietan, kanpo auditoretza baten ardurapean utziko ditu bere kontuak Fundazioak. Zehaztu den kasuan, fundazioak batera aurkeztuko ditu kanpoko ikuskapena eta urteko kontuak.

23. artikulua.- Jarduera-plana

Patronatuak jarduera-plan orekatu bat landu, onetsi eta igorriko du Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzara, hark aztertzeko. Plan hori ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteen barruan igorriko da, eta bertan jasoko dira hurrengo ekitaldirako helburuak, egiteko aurreikusitako jarduerak, kalkulaturako diru-sarreraren eta gastuen partiden aurreikuspena eta jarduera-planaren azalpen-memoria.

24. artikulua.- Urtealdi ekonomikoa.

1.- Urtealdi ekonomikoa urterokoa izango da, egutegiko urteari dagokiona.

2.- Lehenengo urtealdi ekonomikoa Fundazioa eratzen den egunean hasi eta urte horretako abenduaren 31n amaituko da.

25. artikulua.- Administrazioko diru-sarrera eta gastuen xedea.

1- Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta berehala Fundazioaren helburuak betetzeari atxikitzat ulertuko dira.



2- Fundazioak, aldizka-aldizka, bere zeregin dituen jarduerak programatuko ditu, eta, horretarako, urtero prestazioen planifikazioa egingo du eta horiek egiteko eta esleitzeko modua erabakiko da.

3- Bere helburuak betetzeko, lortzen direnetik hasi eta hiru urteren buruan, edozein kontzeptutan lortuko diren errenta garbien eta gainerako sarreraren %70 erabiliko du, gutxienez, haiei dagozkien zergak kenduta, hala balegokio.

Bai Fundazioaren eraketa unean bai gerora, ondare-dotazio moduan egindako ekarpenak baldintza hori bete beharretik salbuetsiak daude.

4.- Gainerako diru-sarrerak Fundazioaren dotazioa gehitzeko erabili beharko dira, administrazio-gastuen kenketa egin ondoren. Gastu hauek ezingo dute %20tik gorakoak izan, Babesletzak, Fundazioak egindako eskari arrazoituaren ondoren, berariaz hartarako baimena eman ezean, indarrean diren legezko eta arauzko xedapenetan aurreikusia dagoenaren arabera.

V. TITULUA ALDATZEA, BATERATZEA ETA AZKENTZEA.

26. artikulua.- Aldatzea.

Fundazioaren Patronatuak Estatutu hauen aldaketa bultzatu ahal izango du, betiere Fundazioaren sorrera-helburuak hobeto betetzeko komenigarri gertatuko balitz. Aldaketa egiteko erabakia Patronatuan hartu beharko da, 15.5 artikuluan aurreikusia dagoen aldeko botoarekin.

27. artikulua.- Bateratzea.

Patronatuak beste fundazio batekin edo batzuekin bateratzea ere erabaki ahal izango du, betiere behar bezala babesten baldin badira Fundazioaren sorrerako helburuak. Bateratzeko erabakia Patronatuan hartu beharko da, 15.5 artikuluan aurreikusia dagoen aldeko botoarekin.

28. artikulua.- Azkentzea.

Fundazioa Euskal Herriko Fundazioen Legean, eta hura garatzen duen araudian aurrikusten diren kasuetan azkenduko da, bai eta Fundazioaren xedea betetzea ezinezko egiten duten inguruabarrak gertatzen direnean ere.

Fundazioa azkendu behar bada, Patronatuak estatutu hauetako 15.5. artikuluan ezartzen den aldeko botoarekin hartutako azkentzeko erabakia behar da. Patronatuak, horrekin batera, jarduteko programa eta likidazioaren emaitza banatzeko proiektua onetsiko ditu.

Azkentzeko erabakiak arrazoitua izan behar du beti, eta ondarearen egoera zein likidazio programa adierazi behar ditu.

Patronatuaren erabakirik ez balego edo Babesletzak erabaki hori berretsiko ez balu, ebazpen judizial arrazoitua beharko litzateke Fundazioa azkentzeko; ebazpen hori, eman behar bada, Babesletzak edo Patronatuak eskatuta eman daiteke.

Azkentzeko erabakia edo ebazpen judizial arrazoitua, horrelakorik badago, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

29. artikulua.- Likidazioa.

Likidazio prozesua , Euskal Herriko Fundazioen Legearen , eta hura garatzen duen araudiaren arabera burutuko da.

Likidazioa egin ondoren geratu diren ondasun eta eskubideak, azkendutako fundazioaren helburuen antzekoak dituzten eta antzeko xedeak lor ditzatekeen beste fundazio edo erakunde batzuetara (publiko zein pribatu) bideratuko dira , eta, lehentasunez, beren helbidea udalerrri berean edo, han izan ezean, lurralde historiko berean dutenetara.

